

# Eglantyne Jebb: mugimendu geldiezin baten hasiera

XIX. mendean, Frantziako Iraultzaren eta Napoleonen gerren osteko Europa gizarte- eta ekonomia-gaien nahasketa kontuan hartzen hasten da, gizartea geroz eta kontzienteagoa da libre bizitzeko gizakiak bizitzeko bitartekoak ziurtatuta eduki behar dituela eta, horrela, modu indartsuago batean hasten dira eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak argia ikusten, lehendik ziren eskubide politikoez eta zibilez gain.

Eta testuinguru horretan kokatzen da Eglantyne Jebb. 1876ko abuztuaren 25ean jaio zen, landako etxe handi batean, Shropshire-ko konderrian. Bere aita, legegizon jantzia zen eta tokiko gaiez interesatu zen, eta bere ama, bere gizarte-mailako eta bere garaiko edozein emakumeren antzera, herriko jendearekin eta, batez ere, inguruko neska-mutilekin erlazionatutako jarduera filantropikoetan aritu zen, eta bere seme-alabak ere jarduera horietan parte hartzera bultzatu zituen.



**«Saiatzen ez garen hori bakarrik da ezinezkoa».**

Hezkuntza arduratsua eta librea jaso zuen; txikitan eduki zituen etxeko andereñoen esker, frantsesa eta alemana ikasi zituen. 19 urterekin, Historia ikasi zuen Oxforden eta bertan graduatu zen. Neska-mutilenganako ardurak irakasle egitera bultzatu zuen, eta ikasle-laguntzaile postua bete zuen parroquia-eskola batean. Ez zen irakasle “peto-petoa” sentitzen, baina ahal zuen bezain ondo egiten zuen bere lana; izan ere, aurrean zituen neska-mutilen patua hobetu ezin izatearen sentimenduak zapaldu egiten zuen, gehienak familia xumeetako seme-alabak izanik.

## Gatazka eragile gisa

1914ko abuztuan Lehen Mundu Gerra piztu zen. “Egunkariak -idatzi zion ahizpa txikiari- gatazkei buruzko titularrez beteak daude; baina Ingalaterrako zenbatek dakite hurrekin zer gertatzen ari den?”. Eglantyne Jebb-ek, Dorothy, bere ahizparekin eta lagun-talde batekin batera, eskura etorritako albiste guztiak bildu zituzten eta Ingalaterra guztian barrena bidaiatu zuten, gobernuaren ekintzara bultzarazi nahian. “Europako hurrek elikagaiak, medikuak eta erizainak behar dituzte; eta oraintxe behar dituzte”.

Beren gogoia handia izan arren, gobernuaren ekintza mantsoa zela ikusten zuten, eta horrela, jaio zen bere ideia: “haurrak salbatzeko erakunde bat sortu behar da”.

**«Pertsonen dagokien errespetua, zioen, ez luke egiten duten lanaren arabera izan behar. Gizartean, klase bakarra dago, gizon-emakumeen klase handia». Berak esandako honelako esaldiak geratu dira: “Nazioarteko hizkuntza bakarra haurren negarra da».**



## Save the Children fundazioa

Zorte handiagoko herrialdeetako biztanleak, lehen eta orain, hunkitu egiten ziren haur bakar baten erailketarekin, baina berdin zitzaien munduko beste toki batzuetako azpielikatutako eta hain pribilegiatuak ez ziren haur aldrak.

1919ko apirilean Save the Children Fund sortu zuen, dirua bildu eta, beste ezer baino lehen, Vienako hurrei esnea bidaltzeko eta, gero, beste hainbat herrialderi laguntza emateko. Diru-bilketa Londreseko Albert Hall-eko mitin handi batean hasi zen.

Ingalaterra guztian hitz egiten zen Save the Children-i buruz. Bulego nagusi bat sortu behar izan zen Londresen, dohaintza jaso eta laguntza bideratzeko. Eta orduan azaleratu zen Eglantyne Jebb-en nortasunaren ezaugarri nagusietako bat, asko harritu zituena eta une hartan ulertu ez zutena: orrialde osoko iragarkiak argitaratu ziren egunkarietan gerraren ostean irauten duten sufrimenduak ezagutzera emateko.

Save the Children-ek behar den tokirako laguntza-kanpaina handiak egiteko erakunde trebearen izen ona irabazi zuen. S.C.F. siglak ezagunak ziren jada. Baina Eglantyne Jebb jabetu zen, halaber, egindako ekintza handi asko arazoaren handitasun eta ikusgaitasun handiari esker soilik egin zirela. Jendearen erantzuna, sarritan, sentimenduen gorabeheraren arabera zela zirudien.

## Larrialdiaren osteko lana

Baina itxuraz lasaiak ziruditen garaietan ere hor jarraitzen zuten zailtasunek: gaizki elikatutako haurrak, gaixorik, ikasteko aukerarik gabe eta haurren lana. Arreta erakartzen zuen hondamendi handirik gabe, zer egin zitekeen? Burutapen horrek eraman zuen, egun batean, Genevako Adierazpeneko edukia idaztera, egungo Haurren Eskubideen Adierazpenaren aurrekaria.

Genevako Adierazpenaren aldarrikapenak Save the Children epe luzerako ikerketak eta plangintzak egiten jarraitzera bultzatu zuen, larrialdietako ekintzak alde batera utzi gabe.

Nazioen Elkarteak Haurren Gutuna bere egin eta berehala, haurren ongizateari buruzko mundu-mailako ikerketa bat egitea izan zen Save the Children-en ekintzarik garrantzitsuena. Herrialde asko beste herrialde batzuetatik deskonektatuta zeuden, eta ez ziren ezagutzen zituzten arazoak. Azkenik, The International Handbook of Child Care and Protection izenarekin argitaratu zen lana.

Eskuliburu horrek gerratik errekueratzen ari ziren edo garatzen hasten ari ziren nazioen gizartea berreraikitzeke lanaren gida bat eskaintzen zuen. Ezkontzari eta dibortzioari, haurren ongizate orokorrari, hezkuntzari, enpleguari edota delinkuentziari buruz ematen zen informazio xehea zela eta, hiru edizio egin ziren hiru urtetan, eta aipagarria da munduko herrialde guztiak aipatzen zirela, herrialde burujabe boteretsuenak nahiz ziren herrialde txikiak.

Eglantyne Jebb-i bizitza luzea geratzen zitzaion oraindik. Save the Children geroago estatuen zereginean txertatu behar zen afizionatuen edo aitzindarien talde bat gisa egituratu beharrean, gobernuekin lan egiten zuen profesionalekin egituratuta utzi zuen, elkar osatuz eta bikoizketak saihestuz, sor zitezkeen beharren handitasunak gaindituta ikus zitezkeen arlo guztietan.

1928ko abenduaren 17an hil zen Genevan, eta hiriko San Jorge hilerrian ehortzi zuten. 2024ko otsailean berriro ehortzi zuten hiriari eta gizateriari lagunduko pertsonak soilik dauden Genevako hilerri batean. Erregeen Hilerrira lekualdatzea ohore handia da, gainerakoek bizitzetan eragin handia izan duten horiei soilik eskaintzen zaielako.